

# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

---

IX. legegintzaldia

Iruña, 2018ko urtarrilaren 10a

3. ZK.

---

### A U R K I B I D E A

G SAILA:

**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

—Nafarroako toki sektore publikoari buruzko 2015eko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina (2. or.).

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

## **Nafarroako toki sektore publikoari buruzko 2015eko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko abenduaren 11n eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak Nafarroako toki sektore publikoari buruzko 2015eko fiskalizazio-txostena egin du.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 8.c) artikuluari dagokionez Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 205. artikuluan ezarritakoarekin bat, hona hau ERABAKI DA:

**1.** Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2017ko abenduaren 11n

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **Nafarroako toki sektore publikoari buruzko 2015eko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina**

#### **AURKIBIDEA**

- I. Sarrera (3. or.).
- II. Lanaren helburua eta norainokoa (4. or.).
- III. Ondorioak eta gomendioak (5. or.).
  - III.1 Ondorioak (5. or.).
  - III.2. Gomendioak (7. or.).

**IV.** Toki sektore publikoaren antolaketa-egitura eta araudia (9. or.).

IV.1. Antolamenduzko egitura (9. or.).

IV.2. Toki sektore publikoa arrazionalizatzeko planteatu diren lege-neurriak (11. or.).

IV.3. 2015ean onetsitako araudia (12. or.).

**V.** Kontuen Ganberak toki entitateak direla-eta 2015ean egin dituen fiskalizazio jarduketan laborpen-oroitidazkia (13. or.).

**VI.** Kontratazio administratiboa (16. or.).

**VII.** Toki sektore publikoaren finantza-egoera 2015ean (18. or.).

VII.1. Aurrekontuko diru-sarrerak (18. or.).

VII.2. Aurrekontu-gastuak (19 or.).

VII.3. Adierazleak eta magnitudeak (20. or.).

VII.4. Aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-iraunkortasunaren helburuak (22. or.).

1. eranskina Toki entitateei 2015eko ekitaldian aplikatzekoa zaien araudia (24. or.).

2. eranskina 2015eko adierazle batzuen alderaketa, Nafarroako udalen eta Estatuko udalen multzoaren artekoa, biztanleria-tarteen arabera (27. or.).

3. eranskina Nafarroako toki sektore publikoaren finantza-egoera 2015ean.

(Oharra: Aipatutako eranskina foru parlamentarien esku dago Agora aplikazioan eta honako web helbidean:

[www.cfnavarra.es/camara.comptos](http://www.cfnavarra.es/camara.comptos)).

## I. SARRERA

Kontuen Ganberak 2017rako bere jarduketa programan sartu du Nafarroako Toki Sektore Publikoaren 2015eko ekitaldiari buruzko txosten bat egitea.

Lan hau egin da Nafarroako Toki Administrazioari buruzko Foru Legeko (TAFL) 350.2 artikulua esaten duena betetzeko, hark ezartzen baitu derrigorrezkoa dela urtero bidaltzea Nafarroako Parlamentuari eta Gobernuari Nafarroako toki entitateen esparruan Kontuen Ganberak egin dituen fiskalizazioko eta kontroleko jarduketan berri ematen duen laburpen-oroitidazkia.

2015eko ekitaldiari buruzko txostena ezin izan da lehenago aurkeztu, Toki Ogasunei buruzko Foru Legeak toki entitateek ekitaldi bakoitzeko kontu orokorra onesteko eta Nafarroako Gobernuari igortzeko ezarritako epeak eta informazio horren tratamenduaren konplexutasuna direla-eta.

Txostenak zazpi atal ditu, sarrera hau barne. Bigarrenean, txostenaren helburuak eta egindako lanaren norainokoa ageri dira. Hirugarrenean, eta laburpen gisa, lortutako ondorio nagusiak eta emandako gomendioak jasotzen ditugu. Laugarren ataletik zazpigarrenera honako hauei buruz egindako iruzkin eta oharrak jasotzen dira: toki sektore publikoaren antolamendu-egitura eta 2015ean onetsitako arau nagusiak, Kontuen Ganberak toki sektore publikoari buruz egindako fiskalizazio-jarduketan oroitidazkia, kontratazio administratiboa eta 2015eko finantza-egoera. Gainera hiru eranskin dauzka, honako hauei buruzkoak:

1. eranskina Nafarroako toki entitateetan 2015ean aplikatzekoa den araudia.
2. eranskina Nafarroako udalen eta Estatuko udalen multzoaren arteko adierazleen alderaketa, populazio-tarteen arabera.
3. eranskina Nafarroako toki sektore publikoaren 2015eko finantza-egoera, Nafarroako Gobernuko Administrazio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiak egindako txostenaren arabera.

Lana urrian egin zuen kontu-ikuskaritzako teknikari batek eta kontu-ikuskatzaile batek osatutako lantaldeak, Kontuen Ganberaren zerbitzu juridikoekin, informatikoekin eta administratiboekin lankidetzan.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Nafarroako toki entitateetako, Toki Administrazioiko Zuzendaritza Nagusiko eta Nafarroako Udalen eta Kontzejuen Federazioko langileei, lan hau egiteko emandako laguntzarengatik.

## II. LANAREN HELBURUA ETA NORAINOKOA

Lanaren helburuak hauexek dira:

- Nafarroako toki entitateen esparruan Ganbera honek egindako fiskalizazio eta kontrol jardueren 2015eko ekitaldiko laburpen-oroitidazkia aurkeztea.
- Nafarroako Toki Sektore Publikoaren 2015eko finantza egoeraren eta antolamenduaren ikuspegi bat ematea Parlamentuari, administrazio publikoei eta Nafarroako gizarteari.
- Azpisektore publiko honen kudeaketa hobetzeko gomendioak proposatzea Nafarroako Parlamentuari, Gobernuari eta toki entitateei.

Aurreko helburuak kontuan hartuta, gure lanaren norainokoak honako hauek hartu ditu zeregin nagusi:

- Nafarroako Toki Sektore Publikoaren antolamendu-egituraren bilakaera, 2015eko ekitaldirako.
- Toki Sektore Publikoari aplikatu beharreko araudi garrantzitsuena, 2015ean emana.
- Kontuen Ganberak Nafarroako toki entitateei buruz 2015eko ekitaldian egindako fiskalizazio-jarduketan laburpena.
- Kontratuen erregistroei erreparatuta, Nafarroako toki entitateek 2015eko ekitaldian egindako kontratu-jardueraren bilakaera.
- Nafarroako toki sektore publikoaren finantza-egoerari buruzko azterketa, Nafarroako Gobernuoko Toki Administrazio Zuzendaritza Nagusiak toki entitateen 2015eko kontu orokorrei buruz egindako azterlanari jarraituz. Azterlan hau egiteko garaian, Nafarroako udal eta kontzeju guztiek bidalita zituzten kontuak; hurrengo entitate hauek, ordea, informazioa bidali gabe zauden:

a) Bi udal batasun: Faltzes eta Miranda Arga udalerrien Administrazio Zerbitzuetarako Batasuna eta Ezkabarte-Olaibarko Udalen Batasuna.

b) Zortzi mankomunitate: Araxes Garaiko Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Orokorren Mankomunitatea, Malerrekako Mankomunitateko Tutoretzapeko Etxebizitzak, Irantzuko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea, Orreagako Kirol Mankomunitatea<sup>1</sup>, Goi Erriberako Kirol Mankomunitatea, Erdialdeko Erriberako Kirol Mankomunitatea<sup>2</sup> eta Aralar Elkartearen Mankomunitatea.

Bestetik, zehaztu beharra dago finantza-egoerari buruzko aipatutako azterketa egiten dela toki entitateen eta haien erakunde autonomoen aurrekontu-datu bateratuekin. Ez dago jasota sozietate publikoei, fundazio publikoei eta tokiko partzuergoei buruzko informaziorik.

<sup>1</sup> Jarduerarik gabeko entitatea

<sup>2</sup> Jarduerarik gabeko entitatea

### III. ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

#### III.1 ONDORIOAK

Honako hauek dira 2015ean toki sektore publikoak izan duen antolamenduari, fiskalizazioari eta egoera finantzarioari buruzko ondorio nagusiak:

- Nafarroako toki sektore publikoa 701 toki entitatek osatzen dute 2015ean: 272 udal, 347 kontzeju, 63 mankomunitate eta 19 ohiturazko elkarte eta udal batasun. Toki ente horiek guztira 129 menpeko ente sortu dituzte zerbitzuak emateko (erakunde autonomoak, enpresak eta fundazio publikoak), eta 15 partzuergotan parte hartzen dute.

2014ko egoerarekin alderatuta, toki entitateen kopuruan izan den aldaketa bakarra da bi mankomunitate gutxiago daudela.

Ganbera honek behin eta berriz adierazi duen bezala, arazoa ez da berez zenbat toki entitate dauden, baizik eta Nafarroako udalen egungo plantaren arrazionalizazio falta, udalerrietako populazioaren dimentsio txikiarekin batera; alderdi horiek eragina dute bai giza baliabideen eta baliabide materialen zuzkiduran, bai haien eskumenak kudeatzeko egitura administratibo egokia eta nahikoa falta izatean ere, eta, azken batean, zaildu egiten du zerbitzu publikoak eman daitezela eskatzekoak diren efizientzia- eta kalitate-mailekin.

- Gaur egun, Nafarroako Gobernuak bultzatutako Nafarroako Toki Administrazioaren erreformarako "erakusketa publikoaren" fasea amaitzen ari da. Elkarrekin lotuta dauden hiru faktoretan oinarritzen da:

a) Eskumenak eta haien banaketa efiziente eta argia, mailen arabera: kontzejuak, udalak, udalez gainekoak eta foru erkidegoaren mailakoak.

b) Tokiko planta edo toki entitateen berrantolatzea, kontzejuei eutsiz, udalei zentraltasuna ematez eta eskualdeen bitarteko udalez gaindiko antolaketa berri batekin.

c) Finantzaketa, toki entitate guztien finantza nahikotasuna ziurtatuz, eta zerbitzu bakoitzeko behar besteko zuzkidura bermatuz; halaber, sarrera berekiak hobetu nahi dira eta Toki Ogasunen Funtsa banatzeko irizpide berriak definitu nahi dira.

Aurreikusita dago 2017ko amaierarako Gobernuak reforma horren behar diren aurreproiektuak egitea.

Kontuen Ganbera honek, toki sektore publikoari buruzko bere txostenetan behin eta berriz adierazi izan duen bezala, urgentetzat eta ezinbestekotzat jotzen du Nafarroako toki administrazioaren antolamendu-egitura berrantolatzea, herritarren egungo eskaerak eta eskakizunak batezgarri egiteko zerbitzu-ematearen kudeaketa publiko efiziente eta eraginkor batekin.

- 2015ean, Ganberak 19 toki entitate fiskalizatu zituen guztira; haien biztanleriak Nafarroa osoko biztanleriaren ehuneko 59 egiten du, eta haien gastuak eta aurrekontuko diru-sarrerak Nafarroako Toki Sektore Publiko osokoaren ehuneko 49 dira. Honako hauek izan ziren fiskalizazio-txosten horien emaitzak:

a) Kontu orokorrari buruzko auditoria finantzarioko iritzia. Guztira, bost txostenek aldeko iritzia dute; 12 txostenek aldeko iritzia dute salbuespenekin, eta bi txostenek aurkako iritzia dute.

Salbuespen nagusiak toki entitateen ondasunen inbentario gaurkotua ez edukitzean dautza, bai eta egoera-orri finantzario eta aurrekontuko jakin batzuk egitean egindako okerretan ere.

b) Legezketasuna betetzearen fiskalizazioari buruzko iritzia Guztira, 14 txostenek aldeko iritzia dute; hiru txostenek aldeko iritzia dute salbuespenekin, eta bi txostenek aurkako iritzia dute.

Legezketasunaren arloko gabezia nagusiak araudiaren kontabilitate eta aurrekontu arloetako araudiaren ez-betetzei dagozkie, bai eta aurrekontu eta kontratazio arloetako araudiaren ez-betetzei ere.

- Kontratazio administratiboaren arloan, 2015ean, Toki Sektore Publikoak guztira 402 kontratu adjudikatu ditu, 93,56 milioiko adjudikazio-zenbatekoarekin. Hauek azpimarratu behar ditugu:

a) Kontratuen ehuneko 76 udalek adjudikatzen dituzte, eta ehuneko 22, berriz, mankomunitateek. Hala eta guztiz ere, adjudikatutako zenbatekoari begiratuta, aurreko enteek adjudikatutako guztizkoaren ehuneko 29 eta 71 egiten dute, hurrenez hurren.

b) Tipologiari erreparatuta, kontratuen ehuneko 51 laguntzakoak dira; ehuneko 29, obreta-koak; ehuneko 17 horniduretakoak eta ehuneko hiru, azkenik, zerbitzu-emakidakoak; adjudikatutako guztizkoaren gainean, ehuneko 64, 21, bederatzi eta bost egiten dute, hurrenez hurren.

c) Adjudikazio-prozedurari begiratuta, ehuneko 56 prozedura irekiaren bidez egiten dira, eta ehuneko 44, berriz, prozedura negoziatuaren bidez.

d) Adjudikazio-irizpideari begiratuta, kontratuen ehuneko 76 eskaintza onenaren irizpidearen arabera adjudikatu dira, eta ehuneko 24, berriz, prezioaren arabera.

- Nabarmendu beharra daukagu toki entitateen 2015eko kontu-ematearen betebeharra neurri handian bete dela; izan ere, toki entitate ia guztiek bidali dute informazioa Nafarroako Gobernuak sektorearen egoera finantzario eta aurrekontukoari buruzko urteko txostena egiteko. Hartara, udalen eta kontzejuen ehuneko 100ek eta udalez gaindiko toki entitateen ehuneko 88k Nafarroako Gobernuari 2015eko kontu orokorra bidalia zioten.

- Finantzen eta aurrekontuaren egoera-orri bateratuari dagokionez, 2015ean aurrekontuko diru-sarrerak 751,27 milioikoak izan ziren; gastuak, berriz, 732,93 milioikoak. Aurreko ekitaldiarekin alderatuta, diru-sarrerak ia aldaketarik ez dute izan; gastuek, berriz, ehuneko bi egin zuten gora.

Gastuen guztizkoaren gaineko portzentajea, ehuneko 36 langile-gastuei eta ehuneko 45 gastu arruntei aplikatu zitzaizkien; inbertsioak eta finantza-zama, berriz, ehuneko 11 eta zazpi izan ziren, hurrenez hurren.

Diru-sarreraren izaerari dagokionez, ehuneko 48 tributu bidezkoak dira eta ehuneko 43 transferentzietatik heldu dira; zorpetze bidezko diru-sarrerak ehuneko bat egiten dute eskas.

62,64 milioiko aurrezki garbia ehuneko 12 jaitsi da aurreko ekitaldikoarekiko. Jaitsiara horren arrazoia da, funtsean, finantza-zamak ehuneko 28 egin duela gora, zorpetzearen amortizazioak ehuneko 33 handitu direlako.

Toki sektore publikoak 2015ean 56,10 milioi euroko aurrekontu-emaitza doitua izan zuen, eta 60,42 milioiko aurrekontu-saldo ez-finantzarioa; halaber, gastu orokorretarako 191.86 milioiko diruzaintza-gerakina izan zuen. Hiru magnitude horiek hazkunde bat izan zuten 2014rekiko, ehuneko hiru, zortzi eta 12koa, hurrenez hurren.

2015eko zor bizia 301,39 milioikoa izan zen, eta aurreko ekitaldiarekiko ehuneko 11ko jaitsi-era izan zuen. Biztanle bakoitzeko, 471 euroko bolumena du.

Tokiko gastuaren ehuneko 55 lau eginkizunetara bideratzen da: gizarte segurtasun eta babesa (funtsean, oinarritzko gizarte zerbitzuak, zahar-etxeak eta pentsioak), etxebizitza eta hirigintza (argiteria publikoa barne), erkidegoaren ongizatea (ura, hiri-hondakinak, bide-garriketa, garraio publikoa...) eta kultura eta kirola.

Azken batean, toki sektore publikoaren egoera ekonomikoa saneatua da, eta aldeko bilakaera bat ikusten da haren adierazleetan eta magnitude ekonomiko-finantzario garrantzitsuetan.

- Aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren terminoetan, Nafarroako toki sektore publikoak orekaren arauak bete ditu, zeren eta 54,72 milioiko finantzaketa-ahalmena lortu baitu – 2014koaren ia bi halako– bai eta zor publikoaren iraunkortasunaren arauak ere; izan ere, zorraren bolumenak –301,39 milioi– ehuneko 43 egiten du diru-sarreraren gainean (2014an, berriz, ehuneko 49 izan zen), hain zuzen ere araudi indardunak ezartzen duen ehuneko 110eko mugatik behera.

- Toki ogasunen araupetzeak –funtsean, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Foru Legearen bitartez– eskatzen du, batetik, aurrekontu- eta kontabilitate-araubidea, barne kontroleko sistema eta finantzaketa-eredua sakon azter daitezela, eta, bestetik, urgentziaz gaurkotu dadila aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren araudiaren betekizunetara egokitzeko.

Halaber, Nafarroako tokiko kontabilitatea araututa dago Toki Administrazioari egokitutako Kontabilitate Publikoko Plan Orokorrean oinarrituta; 1990eko uztailaren 17ko Ministerio Agindua-ren bitartez onetsi zen hura. Halaber, ikusten da toki sektore publikoa osatzen duten unitateen

kontabilitate-bateratzea erregulatuko duten arauak falta direla. Azken batean, oraindik ere egin gabe dago toki kontabilitate publikoaren urgentziazko erreforma sakona, hura 2010eko kontabilitate-plan publiko indardunari egokitzeko.

2015ean zehar, halere, toki entitateen aurrekontu-egitura berri bat onetsi da. Egitura berri hori araubide komuneko toki entitateek aplikatutakoari egokitzen zaio.

### III.2. GOMENDIOAK

Honako hauek dira Ganbera honek Foru Komunitateko Administrazioari eta Nafarroako Parlamentuari egiten dizkion gomendioak:

- *Nafarroako Toki Administrazioa arrazionalizatzeko eta berregituratzeko beharrezkoak diren neurri legegileak eta administratiboak lehentasunez eta premiaz hartzeko hasitako prozesuak amaitzea.*

*Neurri horiek Nafarroako gizarte osoan eta haren botere publikoetan dute eragina; hori dela eta, adostasuna lortzen saiatu behar da, betiere herritarren borondatea eta zilegi diren interesak errespetatuz, eta lidergo politiko-instituzionala gauzatuz neurri horiek inplementatzean.*

- *Tokiko kontabilitatea urgentziaz berritzea eta 2010eko Kontabilitate Publikorako Plan Orokor indardunera egokitzea*

- *Toki entitateen eta horien menpeko enteen kontabilitateko egoera-orriak bateratzeko metodologiari buruzko arauak taxutzea, toki sektore publiko osoak egindako jardueraren erabateko ikuspegia emateko helburuarekin.*

- *Tokiko zerbitzuen kostuak eta kudeaketari buruzko adierazleak taxutzeko metodologia osatzea.*

- *Toki entitateentzat diseinatutako barne kontroleko ereduaz aztertzea, esparru guztietako betekizunei aurre egin ahal izateko.*

- *Toki ogasunen esparru berri bat onestea, hartan jasotzeko Nafarroako toki entitateei aplikatu dakizkiela aurrekontu-egonkortasunari buruzko araudiaren betekizun eta eskakizunak.*

- *Toki entitateek kontuak emateko duten legezko betebeharra epean betetzen dela bermatzeko tresnak sendotzea.*

- *Toki Administrazioako Zuzendaritza Nagusiaren web-orrian argitaratzea toki entitateek kontuak emateari eta haien edukiari buruzko informazioa.*

- *Toki entitateen erregistroaren eguneraketa osatzea sozietate publikoei, fundazioei eta tokiko partzuergoei buruzko informazioarekin.*

- *Toki sektore publikoaren finantza-egoerari buruzko txostena, Nafarroako Gobernuak egindakoa, osatzea sozietate publikoei, fundazioei eta tokiko partzuergoei buruzko informazioarekin.*

- *Langileen plantilla organikoaren eredu bat egitea, zeinak argitasunez eta zehaztasunez jasoko baititu dokumentu horrek bete behar dituen baldintzak eta eduki behar duen informazioa; eredu horrek, halaber, aukera emanen du toki entitateek informazio-betekizunak bete ditzaten.*

- *Tokiko zergen arloan, eta berriki izan diren erabaki judizialak tarteko, lurren balio-gehikuntzaren gaineko zergaren egungo erregulazioa aztertu eta egokitzea.*

Toki entitateentzako aholkuak:

- *Toki entitateek beren burua antolatzeko ahalmena erabiliz, tokiko zerbitzu publikoak eraginkortasunez, ekonomiaz eta efizientziaz kudeatzeko antolamendu-egitura arrazoizkoena diseinatzea.*

- *Egungo arau-testuinguruan, pixkanaka gutxitzea, deialdi egokien bitartez, toki entitateen langileengan gertatzen den behin-behinekotasun maila handia.*

- *Udal-ondasun eta -eskubide guztien inbentario balioztatua eta eguneratua ezartzeko prozesua osatzea, eta hura ibilgetuaren kontuekin lotzea.*

- *Udalaren barne kontrola egitea, aplikatzekoa den legedian ezarritako hedapenarekin, menpeko enteen kudeaketa ekonomikoaren gaineko kontrolari dagokionez, kontu-hartzailetzaren eginkizun hirukoitzean: esku hartzeko eginkizuna, kontrol finantzarioa eta eraginkortasunaren gaineko kontrola.*
- *Lurzoruaren udal ondarearen erregistroa eta inbentarioa sortzea, bai eta hirigintza-hitzarmenen gaineko erregistroa ere.*
- *Zerbitzu publikoen kostuen metodologia ezartzen jarraitzea eta erabakiak hartzeko kudeaketa-adierazle baliagarriak definitzea.*
- *Aurrekontua eta kontu orokorra ezarritako epeetan onestea.*
- *Balorazio-ponentzietarako epea gaurkotzea.*



## IV. TOKI SEKTORE PUBLIKOAREN ANTOLAKETA-EGITURA ETA ARAUDIA

### IV.1. ANTOLAMENDUZKO EGITURA

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legean (TAFL) ezarritakoarekin bat antolatzen da toki sektore publikoa.

Udalak dira lurralde-antolamenduaren oinarritzko toki entitateak, eta soilak ala konposatuak izan daitezke, kontzejuak atxikita edukitzearen arabera.

Honako hauek ere toki entitatearen izaera dute:

- Kontzejuak: udalaren dermioaren barrenean kokaturiko entitate lokalak dira, hark baino biztanle eta lurralde-esparru gutxiago dutenak; ondasun eta nortasun juridikoaren jabe dira beren interesak kudeatu eta administratzeko, TAFLak ematen dizkien eskumenen barrenean.
- Herri-lurretako ondasunen titular edo administratzaile diren ohiturazko korporazioak, historikoki existitu direnak; hamaika entitate dira guztira.
- Udalen batasunak, beren ezaugarriengatik zerbitzu komunak ematea eskatzen dutenak.
- Mankomunitateak edo zenbait udalen elkarteak, obrak elkarrekin egin eta haien eskumenekoak diren zerbitzu jakin batzuk emateko.
- Administrazio-barrutiak, 5.000 biztanlera iristen ez diren landa inguruneko udalek borondatez osatutakoak.
- Tokiko partzuergoak: 2014ko abendutik, TAFLa aldatzen duen 23/2014 Foru Legearen bitartez, tokiko partzuergoak sartu ziren toki entitate gisa. Halere, toki entitatetzat jotze horrek Estatuarekiko gatazka bat sortu zuen; geroztik "Estatuko Administrazio Orokorren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Lankidetzaren Batzordeak" honako erabaki hau hartu zuen 2015eko irailean:

*"a) 23/2014 Foru Legearen 3.1.f; 212.4 eta 5. artikuluek toki entitatearen izaera aitortzen diete tokiko partzuergoei. Nafarroako Foru Komunitateak konpromisoa hartzen du legegintzaldi honetan lege hori aldatzeko, halako moduz non araua egokituko zaion Toki Administrazioaren Arrazionalizazioari eta Iraunkortasunari buruzko abenduaren 27ko 27/2013 Legearen azken xedapenetatik bigarrenean xedatutakoari –hartan zehazten da partzuergo bakoitza administrazio publiko bati atxikiko zaiola– bai eta estatuko oinarritzko legediaren gainerakoari ere, halako moduz non tokiko partzuergoak ez diren Nafarroako toki entitate gisa aitortuko."*

Erabaki hori Nafarroako toki entitateei buruzko araudian jasotzekotan edo zehazteketan dago.

Hurrengo taulan erakusten dugu 2015eko abenduaren 31n Nafarroan dauden **toki entitateen kopurua**, bai eta azken bost urteetan izan den bilakaera ere:

Toki entitatea	2011	2012	2013	2014	2015
Udalak	272	272	272	272	272
Kontzejuak	348	348	348	347	347
Mankomunitateak	66	65	65	65	63
Ohiturazko elkarteak eta udalen batasunak	18	18	18	19	19
<b>Guztira</b>	<b>704</b>	<b>703</b>	<b>703</b>	<b>703</b>	<b>701</b>

Aurreko laukitik, ondokoa ondorioztatzen ahal dugu:

- Udalen kopurua ez da aldatu azken urteetan, eta jasota dago horietatik 60 udal konposatuak direla.

Nafarroako biztanleria, zentsu ofizialaren datuen arabera, 640.476 biztanlekoa da 2015eko urtarrilaren 1ean –2014ko kopuruaren ia berdina da, orduan 640.790 biztanlekoa izan baitzen–, eta honela banatzen da udalerriz udalerriz:

Udalerriak-+ Biztanleria-tartea	Udalerrien kopurua	Udalerriak guztizkoaren gainean (%)	Biztanleria	Biztanleria guztizkoaren gainean (%)
<100	41	15,1	2.574	0,4
100-199	52	19,1	7.323	1,1
200-499	59	21,7	19.084	3,0
500-999	36	13,2	26.028	4,1
1.000-1.999	23	8,5	31.241	4,9
2.000-2.999	24	8,8	59.234	9,2
3.000-4.999	15	5,5	57.140	8,9
5.000-9.999	12	4,4	88.098	13,8
10.000-24.999	8	2,9	118.513	18,5
25.000-50.000	1	0,4	35.388	5,5
50.000 baino gehiago	1	0,4	195.853	30,6
<b>Guztira</b>	<b>272</b>	<b>100</b>	<b>640.476</b>	<b>100</b>

Nafarroako udalerrien ehuneko 69,10ek (188 udalerrri) 1.000 biztanle baino gutxiago dituzte, eta guztizko biztanleriaren ehuneko 8,60 hartzen dute. Nafarroako biztanleen ehuneko 55 Iruñerrian daude eta guztizkoaren ehuneko 30,6 Iruñean bizi dira.

- Kontzejuen kopurua aurreko ekitalditik aldatu ez bada ere, komeni da zehaztea Artetako kontzejua 2016ko azaroan azkendu dela, eta Aietxu, Leazkue eta Izizko kontzejuak jendaurreko informazio fasean daudela; azkendu aurreko fasean, alegia.

- Mankomunitateei dagokienez, berriz, bi gutxiago daude: Betolegi-Erremendia Argindarra Banatzeko Mankomunitatea eta Goi Erriberako Kirol Mankomunitatea. Halaber, honako lau mankomunitate hauek ere badaude, inongo jarduerarik ez dutenak:

- Ezkaibarte-Olaibar Langileriaren Mankomunitatea.
- Aberin-Arellano-Morentin Langileriaren Mankomunitatea.
- Orreaga Kirol Mankomunitatea.
- Erdialdeko Erriberako Kirol Mankomunitatea.

- Ohiturazko elkarteak eta udalen batasunak, berriz mantendu egiten dira aurreko ekitaldikoekin alderatuta: hamaika eta zortzi dira, hurrenez hurren.

2015eko abenduaren 31n, honako hauek dira toki entitateen menpeko erakundearen kopurua – partzuergoak halakotzat hartuta– eta kopuru horrek azken urteetan izan duen bilakaera:

Entitatea	2011	2012	2013	2014	2015
Erakunde autonomoak	66	66	66	65	65
Enpresa publikoak	45	48	50	54	55
Fundazio publikoak	9	9	9	9	9
Partzuergoak*	16	16	16	15	15
<b>Guztira</b>	<b>136</b>	<b>2151</b>	<b>21541</b>	<b>143</b>	<b>144</b>


\*Dauden partzuergo guztiak sartu ditugu, zeren eta bakarra ere ez baita tokiko gisa sailkatu txosten hau idazteko datan.

2014arekin alderatuta, 2015ean honako aldaketa hauek izan direla nabarmendu behar dugu:

- Enpresa publikoak, alde batetik, bi gehiago dira, zeren eta honako hauek sartu baitira: Oltzaleku SL eta Kirol Martiket 2015 SL.; bestetik, Gestión y Promoción Egüés 21 SA enpresa likidatu da.

b) Erakunde autonomo, toki fundazio eta partzuergoetan bi ekitaldietan kopuru bera izan da.

Laburbilduz, hona Nafarroako toki sektore publikoaren egitura 2015eko abenduaren 31n:



#### IV.2. TOKI SEKTORE PUBLIKOA ARRAZIONALIZATZEKO PLANTEATU DIREN LEGE-NEURRIAK

Ganbera honek Toki Sektore Publikoari buruzko 2014ko txostenean gai honi buruz aipatutako aurrekariek indarrean jarraitzen dute. Txosten horretara jotzea gomendatzen dugu.

2016ko otsailean, Nafarroako Gobernuak parte-hartze prozesu bat abiatu du Nafarroako Toki Administrazioaren antolaketa berria definitzeko. Prozesu horretan honako hauek parte hartzen ari dira: Gobernuak berak, Toki Administrazioako Zuzendaritza eragile koordinatzaile gisa erabilita; toki entitateek, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa eragile koordinatzaile gisa erabilita; parlamentu-taldeek; arloko zenbait adituk eta aholkularik; esparruan eskarmentuan duten funtzionarioek, eta beste lurralde-eragile batzuek.

Zehazki, hiru lantalde ezarri dira, bi urtez nagusiki tokiko eskumenekin, tokiko plantarekin eta toki entitateen finantzaketarekin lotutako gaiak lantzeko. Epe hori iraganda, Nafarroako Gobernuak, Toki Administrazioako Departamentuaren bitartez, behar diren legegintza-proposamenak eginen ditu, Parlamentuak 2017 eta 2018 bitarte haiek gauzatu ahal ditzan.

Nafarroako toki administrazioaren erreforma hau honako printzipio eta oinarri hauek dauzka:

- Lurralde eta gizarte kohesioa.
- Tokiko boterearen autonomia eta indartzea, askitasun finantzarioarekin bat.
- Efizientzia zerbitzuak ematerakoan.
- Subsidiarotasuna zerbitzuak ematerakoan.

Eta sistema baten gisara jarduten duten hiru osagai edo faktore dauzka:

a) Eskumenak eta haien banaketa efiziente eta argia, mailen arabera: kontzejuak, udalak, udalez gainekoak eta foru erkidegoaren mailakoak.

b) Tokiko planta edo toki entitateen berrantolatzea, kontzejuei eutsiz, udalei zentraltasuna ematez eta eskualdeen bitarteko udalez gaindiko antolaketa berri batekin.

c) Finantzaketa, toki entitate guztien finantza nahikotasuna ziurtatuz, eta zerbitzu bakoitzeko behar besteko zuzkidura bermatuz; halaber, sarrera berekiak hobetu nahi dira eta Toki Ogasunen Funtsa banatzeko irizpide berriak definitu nahi dira.

Aurreikusitako programazioarekin bat, hasierako proposamen honek honako fase hauek izan ditu: “alde zuzentzea”, “informazioa-kontsulta” eta “eztabaida”; azken fase horren barruan, 2017ko ekainean, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak Nafarroako toki administrazioa berrantolatzeko bere proposamenak aurkeztu zituzten Nafarroako Gobernuari, aurreko osagaien arabera multzokaturik.

Gaur egun, Nafarroako toki administrazioaren erreformarako plana “jendakuntza fasean” dago, eta aurreikusita dago 2017ko amaieran dagozkion foru legeen aurreproiektuak onestea.

#### IV.3. 2015ean ONETSITAKO ARAUDIA

2015ean, Nafarroako Toki Sektore Publikoari aplikatzekoak zaizkien arau batzuk onetsi dira; honako hauek dira aipagarrienak:

- 1/2015 Foru Legea, urtarrilaren 22koa, Kontratu Publikoari buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legea aldatzen duena klausula administratiboen agerian klausula sozialak sartzeko.
- 5/2015 Foru Legea, martxoaren 5koa, Nafarroan hirigintza iraunkorra, hiri-berrikuntza eta hirigintza-jarduera laguntzeko neurriak buruzkoa, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legea aldatzen duena.
- 4/2015 Errege Lege-dekretua, martxoaren 22koa, Lan arloan enplegurako lanbide heziketako sistemaren urduriarazko erreformarako.
- 12/2015 Foru Legea, apirilaren 10koa, zeinaren bitartez Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen arloko presako neurri jakin batzuen indarraldia 2015. urtera luzatzen baita eta langile horien montepioetako klase pasiboen pentsioak eguneratzen baitira.
- 13/2015 Foru Legea, apirilaren 10koa, Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren testu bategina aldatzen duena, desgaitasuna dutenek enplegu publikoa eskuratzeari dagokionez.
- 15/2015 Foru Legea, apirilaren 15koa, Nafarroako Polizia buruzko martxoaren 23ko 8/2007 Foru Legea aldatzen duena
- 25/2015 Foru Legea, abenduaren 28koa, Nafarroako Poliziei buruzko martxoaren 23ko 8/2007 Foru Legea aldatzen duen apirilaren 10eko 15/2015 Foru Legea aldatzekoa.
- 24/2015 Foru Legea, abenduaren 28koa, ondoko foru lege hau aldatzekoa: 21/2014 Foru Legea, azaroaren 12koa, toki ogasunek transferentzia arruntan bidez Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsaren zenbatekoa eta banaketa formula 2015eko eta 2016ko aurrekontu-ekitaldietarako ezarzen dituenak.
- 6/2015 Lege Organikoa, ekainaren 12koa, ondoko hauek aldatzen dituenak: irailaren 22ko 8/1980 Lege Organikoa, Autonomia Erkidegoen Finantzaketari buruzkoa, eta apirilaren 27ko 2/2012 Lege organikoa, Aurrekontu-egonkortasunari eta Finantza-iraunkortasunari buruzkoa.
- 2015eko uztailaren 31ko Ebazpena, Altxorraren eta Finantza Politikaren Idazkaritza Nagusiarena, zeinaren bidez definitzen baita zorpetze-eragiketari eta autonomia erkidegoetatik eta toki entitateetatik heldutakoei aplikatzekoak zaien zuzentza finantzarioa.
- 234/2015 Foru Dekretua, irailaren 23koa, Nafarroako toki entitateen aurrekontu egitura onesten duena.
- 39/2015 Legea, urriaren 1koa, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa.
- 40/2015 Legea, urriaren 1koa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzkoa.
- 48/2015 Legea, urriaren 29koa, Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzkoa.

Txosten honekin batera doan 1. eranskinean, xehetasun guztiekin kontsulta daiteke Nafarroako toki entitateak 2015ean lotuta egon diren oinarriko araudia.

## V. KONTUEN GANBERAK TOKI ENTITATEAK DIRELA-ETA 2015ean EGIN DITUEN FISKALIZAZIO JARDUKETEN LABURPEN-OROITIDAZKIA

Ganbera honek honako 19 toki entitate hauen 2015eko ekitaldiko kontu orokorretako finantzen eta legezketasunaren fiskalizazioa egin du: Antsoain, Aranguren, Aiegi, Barañain, Berriozar, Burlata, Eguesibar, Lizarra, Gazolazko Kontzejua, Izaba, Lerin, Irunberriko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea, Olatzagutia, Ororbiako Kontzejua, Iruña, Tafalla, Tuter, Atarrabia eta Zizur Nagusia.

Ondoren, aurreko toki entitate horien datu adierazgarrienak erakusten ditugu:

Toki entitatea	Txostenaren data	Populazioa 2015-01-01eko erroldaren arabera	Aitortutako betebeharrak	Aitortutako eskubideak	Udaleko eta erakunde autonomoetako 2015-12-31ko langileak	Menpeko entiteak			
						EEAA	Enpresa	Fundazioa	Enpresa-entitate publikoa
Antsoain	2016/10/25	10.830	6.868.428	7.660.591	73	1			
Aranguren	2016/11/24	9.398	9.851.596	9.314.423	76				
Aiegi	2017/04/12	2.217	1.172.285	1.262.105	11		1		
Barañain	2016/11/23	20.475	14.199.843	15.815.577	155	2		1	
Berriozar	2016/12/30	9.625	5.784.281	6.026.387	93		1		
Burlata	2016/12/28	18.336	15.650.707	14.208.080	206	2			
Eguesibarra	2017/1/18	19.603	10.267.602	11.041.084	133		2		
Lizarra	2016/12/13	13.702	10.904.920	12.753.922	135	1	1		
Gazolatz	2017/6/12	135	66.135	31.072	0				
Izaba	2016/11/7	473	1.737.801	1.241.259	4	1	1		
Lerin	2016/10/24	1.665	1.517.772	1.602.592	5				
Irunberriko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea	2017/2/21	Ez da aplikatzen	2.897.554	2.820.315	45				
Olazti Olazagutia	2017/6/6	1.520	1.849.556	2.220.965	21	1	1		
Ororbia	2017/1/27	766	199.705	285.056	2				
Iruña	2016/11/14	195.853	202.733.668	209.938.340	1.696	2	5	1	
Tafalla	2016/11/16	10.809	9.607.179	9.830.122	165	3	1		
Tutera	2016/10/24	35.388	45.228.490	39.106.893	331	1		2	1
Atarrabia	2017/1/20	10.265	7.840.060	8.281.303	104		1		
Zizur	2016/12/1	14.493	11.642.643	11.566.409	112	3			
<b>Fiskalizatutako toki entitateak, guztira</b>		<b>375.553</b>	<b>360.020.225</b>	<b>365.006.495</b>	<b>3.367</b>	<b>17</b>	<b>14</b>	<b>4</b>	<b>1</b>

Nafarroako datu orokorrekin alderatuta, honako hauek dira fiskalizatutako enteen datu nagusiak:

- Populazioaren gutzitza gainean, ehuneko 59 egiten dute.
- Toki entitateen gutzitza kopuruaren gainean, ehuneko hiru dira.
- Aitortutako eskubideen gutzitza kopuruaren gainean, ehuneko 49 egiten dute.
- Aitortutako betebeharren gutzitza kopuruaren gainean, ehuneko 49 dira.
- Menpeko enteen gutzitza kopuruaren gainean (erakunde autonomoak, enpresak eta fundazio publikoak), ehuneko 28 dira.

Finantzen eta legezketasunaren fiskalizazioen helburua da honako hauei buruzko iritzi bat ematea:

- Auditoria finantzarioko iritzia. Ea fiskalizatutako kontu orokorrak, bere alderdi adierazgarri gutzitan, irudi fidela ematen duen ondareari buruz, gastuen eta diru-sarrearen aurrekontuen likidazioari buruz

eta toki entitatearen 2015eko abenduaren 31ko finantza-egoerari buruz, bai eta data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion emaitza ekonomiko eta aurrekontukoei buruz ere, aplikatzekoa den informazio finantzario publikoaren arau-esparruarekin bat, eta bereziki, hartan jasotako kontabilitate-printzipio eta -irizpideekin bat.

- Legezkotasuna betetzearen fiskalizazioari buruzko iritzia. Ea Udalaren 2015eko ekitaldiari dagozkion finantzen egoera-orrietan islatutako jarduerak, aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta informazioa bat ote datozen, alderdi adierazgarri guztietan, funts publikoaren kudeaketari aplikatzekoa zaion araudiarekin.

Txosten horiek Nafarroako Parlamentuaren Aldizkari Ofizialean eta Ganbera honen web-orrian argitaratu ziren.

Txosten hauei buruzko iritzia dagokionez, honako hauek izan ziren emaitzak:

a) Kontu orokorrari buruzko iritzia finantzarioa. Bost txostenek aldeko iritzia dute, 12k aldeko iritzia dute, salbuespenekin, eta bi txostenek aurkako iritzia dute.

b) Legezkotasunari buruzko iritzia. Guztira, 14 txostenek aldeko iritzia dute; hiru txostenek aldeko iritzia dute salbuespenekin, eta bi txostenek aurkako iritzia dute.

Finantzen arloari buruz adierazi diren salbuespen nagusiak honako hauek izan ziren:

- Eguneratu gabeko inbentarioa izatea (9 entitate).
- Langile funtzionarioen pentsio-ereduetatik ondorioztatutako betebeharrak aktuarialak balantzean ez erregistratzea (hiru entitate).

- Informazio finantzarioa eta aurrekontukoa prestatzerakoan akatsak egitea (bi entitate).

Legezkotasunaren arloan, salbuespen nagusiak honako hauei buruzkoak dira:

- Kontabilitateko eta aurrekontuko araudia ez betetzea (bi entitate).
- Aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren arloko arau fiskalak ez betetzea (bi entitate).
- Hornidurako eta laguntza teknikoko kontratuen indarraldiaren epeak gainditzea (bi entitate).

Ganbera honen gomendio nagusiak honako hauek izan ziren 2015eko fiskalizazio txostenetan:

Aurrekontu orokorra eta kontu orokorra

- *Aurrekontu orokorra kasuan kasuko ekitaldia hasi baino lehen onestea (zazpi entitate).*
- *Kontu orokorra hurrengo ekitaldiaren irailaren lehena baino lehen onartzea (sei entitate).*

Ibilgetua eta inbentarioa

- *Entitatearen ondasunen eta eskubideen inbentario bat onestea, hura gaurkotzeko eta kontabilitate-informazioarekin berdinkatzeko sistema iraunkor bat ezarria (hamar entitate).*

Langileak

- *Plantilla organikoan jasotako lanpostuen arrazoizkotasuna aztertzea, egiazki bete direnak kontuan hartuta (bost entitate).*

- *Plantillako lanpostu hutsen aldi baterako izaera aztertzea, eta lege- eta aurrekontu-xedapenek horretarako bidea ematen dutenean, langileen kontratu egonkorren bidez artatzea Udalaren egiturazkoak diren eta izaera finkoa duten jarduerak eta zerbitzuak (bost entitate).*

Kontratazio administratiboa

- *Kontratuen indarraldiaren epea kontrolatzea eta, kasua bada, kontratazio-prozedura berri bat izapidetzea (zazpi entitate).*

#### Emandako diru-laguntzak

- *Diru-laguntzen plan estrategiko bat onestea eta diru-laguntzak emateko prozedurari buruzko ordenantza orokorra egitea (bost entitate).*

#### Aurrekontuko diru-sarrerak

- *Balorazio-ponentzia Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistroari eta Katastroei buruzko azaroaren 1eko 12/2006 Foru Legearen aurreikuspenen arabera berrikustea (lau entitate).*
- *Ikerketa- eta egiaztatze-mekanismoak indartzea, itxitako ekitaldietatik datozen zorren kobrantza errazteko (lau entitate).*

#### Hirigintza

- *Lurzoruaren Udal Ondarea eratzea eta kudeatzea Udalaren gainerako ondasunetatik bereizirik, eta Udalaren Lurzoru Ondarearen Erregistroa sortzea (zortzi entitate).*
- *Udal plangintza Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legearen arabera egokitzeko prozesua osatzea (lau entitate).*
- *Udal plan berri bat egiteko prozesua amaitzea (lau entitate).*

#### Aurrekontu-egonkortasuna eta finantza-iraunkortasuna

- *Arlo honetako arau fiskalak betetzea (bost entitate).*

Erregularotasunari buruzko aurreko txostenez gainera, Ganbera honek txosten bat argitaratu zuen "Nafarroako toki entitateetako kontu-hartzailtza zerbitzuek 2015ean emandako eragozpen-oharrei buruz", Toki Administrazioaren Arrazionalizazioari eta Iraunkortasunari buruzko 27/2013 Legearen esparruan. Honako hauek dira hari buruzko ondorio nagusiak:

**A)** Udalak. 272 udaletatik, 41ek adierazi zuten eragozpen-oharrak bazeuzkatela, 227k adierazi zuten halakorik ez zeukatela eta lauk ez zioten erantzun Ganbera honek egindako eskaerari.

Eragozpen-oharrak dauzkaten 41 udaletan, 171 eragozpen-ohar zeuden, guztira, eta 1,27 milioi euroko kopuruari buruzkoak ziren. Honako hauek dira eragozpen-ohar horien arrazoiak:

- a) Kontratazio-prozeduretan akatsak egotea.
- b) Justifikazioan gabeziak egotea.
- c) Behar adinako krediturik gabe egindako gastuak.

Honela ebatzi ziren eragozpen-ohar horiek:

- 148 kasutan, alkateak edo Osoko Bilkurak desadostasuna ebatzi zituzten, eta espedientea izapidetzen jarraitu zen. Guztira, 1,05 milioi egiten dute kasu horiek.
- 23 kasutan, espedientea zuzendu egin da. Haien zenbatekoak 216.442 euro egiten du.

Ez dago jasota kasu guztietan osoko bilkurari aurkeztu izana egindako eragozpen-oharren aurka entitateko lehendakariak eman dituen ebazpen guztiei buruzko txostena; izan ere, horixe eskatzen du Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Foru Legeko 246. artikulua.

**B)** Beste toki ente batzuk. Eragozpen-oharrei buruzko informazio hau eskatu zitzaizkien 77 mankomunitate eta batasunetatik, 63 entitatek erantzun zuten guztira. Erantzunetan, aipatzen da kasu bakarrean ere ez dela eragozpen-oharrik egin.

**VI. KONTRATAZIO ADMINISTRATIBOA**

Atal honetan, toki entitateek eta haien menpeko enteeek 2015ean adjudikatutako kontratuak aztertzen ditugu, Kontratazio Publikorako Batzordeak kudeatutako Kontratuaren Erregistroan dagoen informazioaren arabera.

Honako hauek dira toki entitateek adjudikatutako kontratuaren oinarrizko datuak:

Kontratu-mota	Udalak		Batasunak		Mankomunitateak		Guztira	
	Kopurua	Adjudikatutako zenbatekoa	Zenbat	Adjudikatutako zenbatekoa	Zenbat	Adjudikatutako zenbatekoa	Zenbat	Adjudikatutako zenbatekoa
Bertaratzea	146	7.802.747	1	18.480	37	52.624.614	184	60.445.841
Obrak	115	14.401.346	1	41.208	20	5.361.384	136	19.803.939
Hornidura	36	787.109			30	8.060.353	66	8.847.461
Zerbitzu-emakidak	10	4.271.742					10	4.271.742
<b>Guztira</b>	<b>307</b>	<b>27.262.945</b>	<b>2</b>	<b>59.688</b>	<b>87</b>	<b>66.046.351</b>	<b>396</b>	<b>93.368.984</b>

Taula horretatik datu hauek dira aipagarriak:

- 2015ean, toki entitateek 396 kontratu adjudikatu zituzten, guztira 93,37 milioi euro egin zutenak; 2014an, berriz, 311 kontratu adjudikatu zituzten, eta kontratatutako kopurua 41,41 milioi eurokoa izan zen.
- Toki ente adjudikazio-emaleari erreparatuta, kontratuaren ehuneko 76 udalek adjudikatu zituzten; halere, kopuruari begiratuta, ehuneko 71 mankomunitateei dagokie.
- Kontratuaren tipologiari begiratuta, laguntza-kontratuak guztizkoaren ehuneko 47 egiten dute, eta guztizko zenbatekoaren ehuneko 65.
- Erregistroak emandako informazioaren arabera, kontzejuek 2015ean ez zuten kontratu bakarra ere adjudikatu.

2015ean, toki entitateen menpeko enteen barruan, erakunde autonomoen adjudikazioak baizik ez dira ageri, honako taula honetan ikus daitekeen bezala:

Kontratu-mota	Erakunde autonomoak	
	Zenbat	Adjudikatutako zenbatekoa
Bertaratzea	3	97.750
Obrak	1	84.572
Hornidura	1	11.088
Zerbitzu-emakidak.	1	1.100
<b>Guztira</b>	<b>6</b>	<b>194.510</b>

Kopuru handiena laguntza-kontratuak egiten dute, nahiz eta, zenbatekoari begiratuta, obra-kontratuak izan garrantzitsuena.

Laburbilduz, 2015ean toki entitateek eta haien organismo autonomoek guztira 402 kontratu adjudikatu zituzten: 93,56 milioi euro egin zuten. 2014an, berriz, 323 kontratu eta 42,24 milioi euro izan ziren.



Hona toki entitateek eta haien mendeko enteek egindako kontratuetan baliatutako adjudikazio-prozedura eta -irizpidea:

Kontratu-mota	Prozedura irekia		Prozedura negoziatua		Prozedura murriztua		Kontratuak, guztira
	Eskaintza onena	Preziorik merkeena	Eskaintza onena	Preziorik merkeena	Eskaintza onena	Preziorik merkeena	
Bertaratzea	107	13	46	41			207
Obrak	40	9	46	21	1		117
Hornidura	41	5	13	8			67
Zerbitzu-emakidak	10		1				11
<b>Guztira</b>	<b>198</b>	<b>27</b>	<b>106</b>	<b>70</b>	<b>1</b>	<b>0</b>	<b>402</b>

Taula horretatik, honako hauek dira aipatu beharrekoak:

- Kontratuen ehuneko 56 prozedura irekiaren bitartez adjudikatu dira. Prozedura negoziatua, berriz, kontratuen ehuneko 44an aplikatu zen.
- Irizpidearen arabera, ehuneko 76an eskaintza onenaren irizpidea aplikatu zen.

Azkenik, 2015ean adjudikatutako 402 kontratuetatik, 69k 150.000 eurotik gorako adjudikazio-zenbatekoa zuten. Kontratu horiek urteko guztizko kopuruaren ehuneko 17 egiten dute, eta zenbatekoak, berriz, ehuneko 86. Haien tipologia honako taula honetan ageri dena da:

Kontratu-mota	Kontratu kopurua > 150.000 euro	Adjudikazioaren zenbatekoa
Bertaratzea	20	54.704.457
Obrak	35	14.430.724
Hornidura	13	7.161.496
Zerbitzu-emakidak.	1	4.059.564
<b>Guztira</b>	<b>69</b>	<b>80.356.240</b>

**VII. TOKI SEKTORE PUBLIKOAREN FINANTZA-EGOERA 2015ean**

Toki sektore publikoaren 2015. urteko finantza-egoeraren azterketa Nafarroako Gobernuko Toki Administrazioiko Zuzendaritza Nagusiaren txosteneko lehenengo atalean oinarrituta dago. Txosten honen 2. eranskinean gehitu duguna da. Toki enteen informazio agregatua aurkezten da (udalak, kontzejuak, mankomunitateak, ohiturazko elkarteak eta udalen batasunak), beren erakunde autonomoekin; ez da jasotzen sozietate eta fundazio publikoei buruzko informazioa, ez eta, kasua bada, tokiko partzuergoei buruzkoa ere.

**VII.1. AURREKONTUKO DIRU-SARRERAK**

Ondoren, toki sektore publikoaren 2015eko diru-sarreraren aurrekontu-betearaztea (euroak milakotan) erakusten dugu, bai eta haren eta aurreko urtekoaren arteko alderatzea ere (ehunekotan).

Kapitulua	Behin betiko aurreikuspenak	Diru-sarrerak 2015	Betetzearen %	Diru-sarreraren gaineko %	Diru-sarreraren aldaketa 2015/14 %
1 Zerga zuzenak	179.714	189.730	106	25	2
2 Zeharkako zergak	15.998	16.081	101	2	13
3 Tasak, prezio publikoak eta bestelako diru-sarrerak	144.964	153.310	106	20	3
4 Transferentzia arruntak	301.557	298.359	99	40	1
5 Ondare bidezko diru-sarrerak	47.846	46.790	98	6	-5
<i>Diru-sarrera arruntak</i>	<i>690.079</i>	<i>704.270</i>	<i>102</i>	<i>94</i>	<i>1</i>
6 Inbertsio errealak besterentzea	13.890	9.727	70	1	30
7 Kapital-transferentziak	49.275	24.378	49	3	-39
<i>Kapital diru-sarrerak</i>	<i>63.166</i>	<i>34.105</i>	<i>54</i>	<i>4</i>	<i>-28</i>
8 Finantza-aktiboaren aldaketa	67.059	1.747	3	0	-21
9 Finantza-pasiboaren aldaketa	22.037	11.152	51	1	246
<i>Finantza-eragiketen bidezko diru-sarrerak</i>	<i>89.096</i>	<i>12.898</i>	<i>14</i>	<i>2</i>	<i>138</i>
<b>2015eko Toki Sektore Publikoaren diru-sarrerak, guztira</b>	<b>842.341</b>	<b>751.273</b>	<b>89</b>	<b>100</b>	<b>0,45</b>

2015erako diru-sarreraren behin betiko aurreikuspenak 842,34 milioikoak izan ziren; aitortutako esku-bideak, berriz, 751,27 milioikoak izan ziren. Horrenbestez, betetze-maila ehuneko 89koa izan zen eta kobrantzaren ehunekoak, berriz, ehuneko 91koa.

Diru-sarrera arruntan kasuan aurreikusitakoaren ehuneko 102 bete ziren bitartean, nabarmentzekoa da eragiketa finantzarioetatik eta kapitaletik heldu diren diru-sarreraren betetze txikia; izan ere, ehuneko 14 eta ehuneko 54 bete ziren, hurrenez hurren.

Izaera ekonomikoari begiratuta, diru-sarreraren ehuneko 94 arruntak dira; kapitaleko diru-sarrerak eta finantza-eragiketen diru-sarrerak ehuneko lau eta bi eskas egiten dute, hurrenez hurren. Diru-sarreraren guztizkoan pisu handiena duten aurrekontu-kapituluak honako hauek dira: transferentzia arruntak –guztizkoaren ehuneko 40– eta tributu bidezko diru-sarrerak –1. eta 3. kapituluak, guztizkoaren ehuneko 47ekin–.

Diru-sarrera guztien ehuneko 86 udalei eta kontzejuei dagokie, eta ehuneko 14, berriz, mankomunitateei eta batasunei.

2014arekin alderatuta, diru-sarrerak zerbait egiten dute gora, ehuneko 0,45; hau da, 3,40 milioi handiagoak dira. Diru-sarrera motaren arabera, aldaketa askotarikoa izan da. Hartara, diru-sarrera arruntek ehuneko bat egin dute gora; kapitalekoak ehuneko 28 egin dute behera, eta finantza-eragiketak, berriz, ehuneko 138 handitu dira. Azken diru-sarrera horien barruan, nabarmentzekoa da pasibo finantzarioen igoera, 3,22 milioititik 11,15 milioira handitu baita.

## VII.2. AURREKONTU-GASTUAK

Hona gastuen laburpen-taula:

(Euroak milakotan)

Kapitulua	Créditos definitivos	2015eko gastuak	% ejecución	Gastu guztien gainerako %	Gastuen aldaketa % 2015/14
1 Langileen gastuak	271.078	263.091	97	36	3
2 Ondare arruntak eta zerbitzuak erostea	277.048	258.285	93	35	0
3 Finantza-gastuak	8.822	6.642	75	1	2
4 Transferentzia arruntak	78.380	70.370	90	10	-1
<i>Gastu arruntak</i>	<i>635.329</i>	<i>598.387</i>	<i>94</i>	<i>82</i>	<i>1</i>
6 Inbertsio errealak	132.676	72.992	55	10	-13
7 Kapital-transferentziak	7.702	6.578	85	1	-39
<i>Kapital-gastuak</i>	<i>140.378</i>	<i>79.570</i>	<i>57</i>	<i>11</i>	<i>-16</i>
8 Finantza-aktiboaren aldaketa	13.055	11.732	90	2	368
9 Finantza-pasiboaren aldaketa	44.495	43.245	97	6	33
<i>Finantza-eragiketen bidezko gastuak</i>	<i>57.550</i>	<i>54.977</i>	<i>96</i>	<i>8</i>	<i>57</i>
<b>2015eko Toki Sektore Publikoaren gastuak, guztira</b>	<b>833.257</b>	<b>732.934</b>	<b>88</b>	<b>100</b>	<b>2</b>

Gastuen 2015erako behin betiko aurreikuspenak 833,26 milioikoak izan dira; bitartean, aitortutako betebeharrak 732,93 milioikoak izan dira. Horrenbestez, betearazpen-maila ehuneko 88koa da eta ordainketaren portzentajea, berriz, ehuneko 93koa.

Gastu arruntak eta eragiketa finantzarioak ehuneko 94 eta 96 betearazi ziren bitartean, hurrenez hurren, nabarmentzekoa da kapitaleko gastuen betearazpen txikia, ehuneko 57koa, bereziki inbertsioen 6. kapituluari dagokionean, horretan betetzea ehuneko 55koa izan baita.

Izaera ekonomikoari begiratuta, gastuen ehuneko 82 arruntak dira; kapitaleko gastuek eta finantza-eragiketen gastuek ehuneko 11 eta zortzi egiten dute, hurrenez hurren. Gastuen guztizkoan pisu handiena duten aurrekontu-kapituluak honako hauek dira: langileak –guztizkoaren ehuneko 36– eta ondasun arruntak eta zerbitzuen erosketak –ehuneko 35–.

Gastu guztien ehuneko 86 udalei eta kontzejuei dagokie, eta ehuneko 14, berriz, mankomunitatei eta batasunei.

2014arekin alderatuta, gastuek ehuneko bi egin dute gora; hau da, 12,16 milioi handitu dira. Gastu motaren arabera, aldaketa askotarikoa izan da. Hartara, langile-gastuak ehuneko hiru handitu dira, inbertsioak ehuneko 13 jaitsi diren bitartean; halaber, aipatu beharra daukagu pasibo finantzarioetako gastua 32,46 milioikoa izatetik 43,25 milioikoa izatera pasa dela, neurri handi batean Aurrekontu-egonkortasunari eta Finantza-iraunkortasunari buruzko Lege Organikoaren 32. artikulua aplikatzearen ondorioz.

Gastu hauen sailkapen funtzionalari erreparatuta, honako taula honetan ikus dezakegu izandako banaketa:

(euroak, milakotan)		
Funtzioa	Zenbatekoa	Ehunekoak
Segurtasuna eta gizarte babesa	114.952	16
Etxebizitza eta hirigintza	103.277	14
Erkidegoaren ongizatea	94.486	13
Kultura eta kirola	92.913	12
Entitatearen administrazio orokorra	80.822	11
Hezkuntza	62.464	8
Segurtasuna eta babes zibila	48.379	7
Finantza zama eta administrazioa	42.582	6
Beste batzuk	93.059	13
<b>Toki Sektore Publikoaren gastuak, guztira</b>	<b>732.934</b>	<b>100</b>

Honako eginkizun nagusi hauek azpimarra ditzakegu: gastuaren ehuneko 16 segurtasunera eta gizarte babesera bideratzen da (funtsean, oinarritzeko gizarte zerbitzuak, zaharrentzako egoitzak eta pentsioak); ehuneko 15 etxebizitzari eta hirigintzari dagozkio (horren barruan, argiteria publikoa); ehuneko 13 erkidegoaren ongizaterako da (ura, hiri hondakinak, bide garbiketa, garraio publikoa...), ehuneko 12 kulturara eta kirolera bideratzen da, eta ehuneko 11, berriz, entitatearen administrazio orokorrerako da. Gastu funtzionalaren banaketa hori ia 2014ko bera da.

### VII.3. ADIERAZLEAK ETA MAGNITUDEAK

Hurrengo taulan, Toki Sektore Publikoan gastatutako 100 euro bakoitzaren bilakaera eta banaketa erakusten dugu, bai eta horien finantzaketa ere.

Gastuaren izaera	2014	2015	Finantzatzeko iturria	2014	2015
Langileak	36	36	Zerga bidezko diru-sarrerak	47	48
Bestelako gastu arruntak	45	45	Transferentziak	45	43
Inbertsioak	13	11	Ondare bidezko diru-sarrerak eta bestelakoak	8	8
Finantza-zama	5	7	Zorpetzea	0	1
Finantza-aktiboak	1	1			
	100	100		100	100

Ikus daitekeen bezala, gastuetan nolabaiteko homogeneousutasuna dago bi urteetan, baina inbertsioetako gastuaren gutxitze bat ere badago, ehuneko bikoia, eta portzentaje bera egiten duen igoera bat ere badago finantza-zaman.

Diru-sarreraren eremuan, transferentzien bidezko diru-sarreraren nolabaiteko gutxitze bat aurkitzen dugu, bai eta tributu bidezko diru-sarreraren eta zorpetzearen halako handitze bat ere.

Ondoren, adierazle eta magnitude garrantzitsuen bilakaera erakusten dugu, bai eta aurreko ekitaldiko balioekiko alderaketa ere.

(Eurotan)			
Adierazleak	2014	2015	15/14 aldea %
Aitorturiko betebeharrak, guztira	720.771.377	732.934.370	2
Aitorturiko eskubideak, guztira	747.875.385	751.273.154	0
Gastuak betetzea %	86	88	
Diru-sarrerak betetzea %	89	89	
Gastu arruntak (1tik 4ra bitarteko kapituluak)	591.005.142	598.386.896	1
Funtzionamendu-gastuak (1, 2 eta 4)	584.502.897	591.745.067	1
Kapital-gastuak (6 eta 7)	94.682.122	79.570.195	-16
Finantza-eragiketen gastuak (8 eta 9)	35.084.114	54.977.279	57
Diru-sarrera arruntak (1tik 5era bitartekoak)	694.899.214	704.270.334	1
Zerba bidezko diru-sarrerak (1tik 3ra bitartekoak)	348.955.725	359.120.546	3
Kapital-dirusarrerak (6 eta 7)	56.822.366	56.517.430	-1
Finantza-eragiketen bidezko diru-sarrerak (8 eta 9)	5.430.188	12.898.200	138
Zerga bidezko diru-sarreraren % gastu arrunten gainean	59	60	
Gastu arrunta/biztanlea	922	934	1
Zerga bidezko diru-sarrerak/biztanlea	545	561	3
Dirulaguntzen menpekotasuna %	45	43	
Aurrezki gordina	110.396.317	112.525.267	2
Finantza-zama	39.082.137	49.887.284	28
Aurrezki garbia	71.314.180	62.637.983	-12
Doituriko aurrekontuaren emaitza	54.484.992	56.103.471	3
Aurrekontu-saldo ez finantzarioa	56.017.571	60.417.862	8
Diruzaintzaren soberakina, guztira	284.232.939	288.901.927	2
Diruzaintzaren soberakina, gastu orokorrak	170.557.427	191.859.372	12
Finantza-zamaren adierazlea <sup>(1)</sup>	6	7	
Diru-sarrera arrunten gaineko aurrezki gordinaren % <sup>(2)</sup>	16	16	
Zorpetze ahalmena %	10	9	
Zor bizia	337.659.270	301.392.480	-11
Zorpetze maila <sup>(3)</sup>	49	43	
Zor bizia/biztanlea	527	471	-11

<sup>(1)</sup> Lehen "zorpetze maila" deiturikoa

<sup>(2)</sup> Lehen "zorpetze muga" deiturikoa

<sup>(3)</sup> Lehen "diru-sarrera arrunten gaineko zor biziaren portzentajea" deiturikoa

Aurrekontuko gastuen eta diru-sarreraren bolumen orokorrari buruzko aurreko iruzkinez gainera, honako alderdi hauek nabarmendu behar ditugu:

- Gastu arruntak eta funtzionamendukoak pixka bat handitu dira: ehuneko bat; kapitaleko gastuak, berriz, ehuneko 16 jaitsi dira; bestetik, finantza-eragiketen bidezko gastuak ehuneko 33 handitu dira, eta haien jatorria, funtsean, pasibo finantzarioen amortizazioaren bolumen handiagoan dago.

- Tributu bidezko diru-sarrerak ehuneko hiru handitu dira, eta bi ekitaldietan gastu arrunten ehuneko 60 inguru finantzatzeko balio izan dute.

- Diru-laguntzekiko menpekotasuna, finantza iturri gisa, ehuneko 45 ingurukoa da bi ekitaldietan.

- Aurrezki gordina ehuneko bi inguru hazi bada ere, finantza-zamaren igoerak –ehuneko 28– eragin du aurrezki garbia ehuneko 12 jaistea, eta 62,64 milioiko zifrara iristea.
- Aurrekontu-emaizta doitua ehuneko hiru handitu da; bitartean, aurrekontu-saldo ez-finantzarioa ehuneko zortzi handitu da.
- Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakinak nabarmen egin du gora, ehuneko 12, eta 191,86 milioikoa da.
- Zor bizia ehuneko 11 jaitsi da: 2015ean 301,39 milioikoa da, eta 471 eurokoa da biztanle bakoitzeko. Zorpetze-mailaren ratioa –edo zor biziak diru-sarrerara arrunten gainean egiten duen portzentajea– ehuneko 49 izatetik ehuneko 43 izatera pasa da.

#### VII.4. AURREKONTU-EGONKORTASUNEN ETA FINANTZA-IRAUNKORTASUNAREN HELBURUAK

Aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoari jarraituz, “Tokiko Administrazio Publikoaren” sektoreak honako arau fiskal hauek bete behar ditu:

- Aurrekontu-egonkortasuna, edo ekitaldiko oreka/finantzaketa-gaitasuna, kontabilitate nazionalerako terminoetan neurtua.
- Gastu-araua, hau da, 2014koarekin alderatuta sektorearen gastu zenbakarrian dagoen aldeak, ezin du gainditu BPGaren hazkunderaren erreferentziako tasa. Tasa hori ehuneko 1,3an ezarri zen ekitaldi horretarako.
- Zor publikoaren iraunkortasunak esan nahi du sektorearen zorrak, kontabilitate nazionalerako terminoetan, ezin duela gainditu diru-sarrerara arrunten ehuneko 110a.
- Merkataritza-zorren iraunkortasunak esan nahi du hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epeak ezin duela gainditu, orokorrean, 30 eguneko muga.

Arlo honetan, Toki Administrazioiko Zuzendaritza Nagusiak emandako informazioa toki entitateetara eta haien organismo autonomoetara mugatzen da, kontabilitate nazionalaren terminoetan “Nafarroako Toki Administrazio Publikoaren” sektorea berez egituratu gabe. Horretan oinarrituta, honako hau aipa dezakegu:

Lehen. Toki sektore publikoaren finantzaketa-ahalmena 54,72 milioikoa da 2015ean: aurreko ekitaldikoaren ia bi halako da. Horrenbestez, zerga-arau hori bete egin da, honako taula honetik ondoriozta daitekeen bezala:

Finantzaketa-beharra/gaitasuna	Zenbatekoa
Aurrekontuko saldo ez finantzarioa	60.417.862
Doikuntzak:	
Diru-bilketa ez-seguruko diru-sarrerak	(8.264.274)
Administrazioen arteko transferentziak	2.564.733
<b>2015eko gaitasun finantzarioa</b>	<b>54.718.321</b>

Bigarrena. Sektorearen zor bizia 301,39 eurokoa da 2015eko abenduaren 31n, eta diru-sarrerara arrunten ehuneko 43 egiten du. Portzentaje hori legedi indardunean ezarritako ehuneko 110eko mugatik beherakoa da; horrenbestez, arau hori bete egiten da.

Hirugarrena. Ez da informaziorik ematen gastu arauari buruz eta merkataritza-zorra ordaintzeko epeei buruz. Azken arau horri dagokionez, egiaztatu da, Ogasuneko eta Administrazio Publikoetako Ministerioaren argitalpenari jarraituz, informazio hori badagoela soilik Nafarroako 39 toki entitateen kasuan; horren arabera, ordainketarako batez besteko epea, ekitaldiko batez bestekoaren arabera, 20,4 eguneko da; hau da, legedi indardunak aipatzen duen 30 eguneko epeetik beherakoa.

Era berean, 2015ean, aurrekontu-egonkortasunaren arloan, Nafarroako toki entitateek urratu egin zuten exigitzekoa den informazioa Ogasuneko Ministeriora bidaltzeko betebeharra, datuak ministerio horren plataforman kargatzeko modua egokitu gabe dagoelako.

Ignacio Cabeza del Salvador auditorea arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta eman da txosten hau, indarrean dagoen araudiak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2017ko azaroaren 30ean

Lehendakaria,

Asunción Olaechea Estanga

## 1. ERANSKINA TOKI ENTITATEEI 2015eko EKITALDIAN APLIKATZEKO ZAIEN ARAUDIA

Ondoko lege- eta erregelamendu-xedapenak dira, funtsean, Nafarroako toki entitateek 2015ean bete behar duten oinarrizko araudia:

### a) Toki administrazioa eta araubidea

- 6/1990 Foru Legea, uztailaren 2koa, Nafarroako Toki Administrazioari buruzkoa.
- 7/1985 Foru Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituena.
- 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzkoa.
- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa.
- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzkoa.
- 36/2014 Legea, abenduaren 26koa, Estatuaren 2015erako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa.
- 48/2015 Legea, urriaren 29koa, 2016rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzkoa.

### b) Araubide ekonomikoa, aurrekontukoa eta kontabilitatekoa

- 2/1995 Foru Legea, martxoaren 10ekoa, Nafarroako Toki Ogasunei buruzkoa.
- 7/1996 Foru Legea, maiatzaren 28koa, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren Tarifei eta Jarrabideei buruzkoa.
- 270/1998 Foru Dekretua, 271/1998 Foru Dekretua, 272/1998 Foru Dekretua eta 273/1998 Foru Dekretua, irailaren 21ekoak denak, aurrekontuei eta gastu publikoari, aurrekontuen egiturari, Nafarroako Toki Administrazioarentzat Kontabilitate Orokorreko Instrukzioari eta Kontabilitate Bakunari dagokiena, hurrenez hurren.
- 234/2015 Foru Dekretua, irailaren 23koa, Nafarroako toki entitateen aurrekontu egitura onesten duena.
- Kontabilitate publikoaren plan orokorra, toki-administrazioari egokitua, Ekonomia eta Ogasun Ministerioak 1990eko uztailaren 17ko aginduz onetsitakoa. (272/1998 FD 425 Araua, Kontularitzako Instrukzio orokorra).
- 12/2006 Foru Legea, azaroaren 21ekoa, Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistroari eta Katastroei buruzkoa.
- 3/2012 Foru Legea, martxoaren 14koa, 2009-2012 Eperako Toki Inbertsioen Planari buruzko urriaren 24ko 16/2008 Foru Legea aldatu eta haren indarraldia luzatzen duena.
- 21/2014 Foru Legea, azaroaren 12koa, toki ogasunek transferentzia arrunten bidez Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsaren zenbatekoa eta banaketa 2015eko eta 2016ko aurrekontu-ekitaldietarako ezartzen dituena.
- 24/2015 Foru Legea, abenduaren 28koa, ondoko foru lege hau aldatzekoa: 21/2014 Foru Legea, azaroaren 12koa, toki ogasunek transferentzia arrunten bidez Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsaren zenbatekoa eta banaketa formula 2015eko eta 2016ko aurrekontu-ekitaldietarako ezartzen dituena.
- 28/2014 Foru Legea, abenduaren 24koa, Tributu-neurriei buruzkoa

### c) Aurrekontu-egonkortasuna eta finantza-iraunkortasuna

- 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa (irailaren 28ko 4/2012 Lege Organikoaz aldatu zen)
- 5/2015 Lege Organikoa, ekainaren 12koa, ondoko hauek aldatzen dituena: irailaren 22ko 8/1980 Lege Organikoa, Autonomia Erkidegoen Finantzaketari buruzkoa, eta apirilaren 27ko 2/2012 Lege organikoa, Aurrekontu-egonkortasunari eta Finantza-iraunkortasunari buruzkoa.



- 9/2013 Lege Organikoa, abenduaren 20koa, Sektore publikoan merkataritza-zorra kontrolatzeari buruzkoa.
- 27/2012 Foru Legea, abenduaren 28koa, zeinaren bidez Nafarroako Foru Komunitatean neurriak hartzen baitira aurrekontu-oreka bermatzeko eta lehiakortasuna sustatzeko.
- 25/2013 Legea, abenduaren 27koa, Sektore publikoan faktura elektronikoa bultzatzeari eta fakturen kontabilitate-erregistroa sortzeari buruzkoa.
- 27/2013 Legea, abenduaren 27koa, Toki Administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasunari buruzkoa.
- 8/2013 Errege Lege-dekretua, ekainaren 28koa, Administrazio publikoen berankortasunaren aurkako neurri urgenteei eta finantza-arazoak dituzten toki entitateei laguntzeari buruzkoa.
- 17/2014 Errege Lege-dekretua, abenduaren 26koa, Autonomia-erkidegoen eta toki-erakundeen finantza-iraunkortasunerako neurriei eta bestelako neurri ekonomikoiei buruzkoa.
- HAP/2105/2012 Agindua, urriaren 1ekoa, Aurrekontu-egonkortasun eta Finantza-iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoan informazioa emateko aurreikusitako betebeharrak garatzeko.
- 2015eko uztailaren 31ko Ebazpena, Altxorraren eta Finantza Politikaren Idazkaritza Nagusiarena, zienaren bidez definitzen baita zorpetze-eragiketei eta autonomia erkidegoetatik eta toki entitateetatik heldutakoei aplikatzekoa zaien zuhurtasun finantzarioa.

#### **d) Kontratazio administratiboa**

- 6/2006 Foru Legea, ekainaren 9koa, Kontratu Publikoiei buruzkoa, otsailaren 14ko 1/2007 Foru Legean zehaztutako berezitasunekin.
- 1/2015 Foru Legea, urtarrilaren 22koa, Kontratu Publikoiei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legea aldatzen duena klausula administratiboen agirietan klausula sozialak sartzeko.

#### **e) Langileak**

- 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, abuztuaren 30ekoa, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren testuategina onesten duena, bai eta haiek garatzeko xedapenak ere.
- 26/2012 Foru Legea, abenduaren 26koa, zeinaren bidez aldatzen baita ekainaren 21eko 13/2012 Foru Legea, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen arloan presako zenbait neurri hartzeari buruzkoa.
- 12/2015 Foru Legea, apirilaren 10ekoa, zeinaren bitartez Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen arloko presako neurri jakin batzuen indarraldia 2015. urtera luzatzen baita eta langile horien montepioetako klase pasiboen pentsioak eguneratzen baitira.
- 13/2015 Foru Legea, apirilaren 10ekoa, Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren testuategina aldatzen duena, desgaitasuna dutenek enplegu publikoa eskuratzeari dagokionez.
- 15/2015 Foru Legea, apirilaren 10ekoa, Nafarroako Polizia buruzko martxoaren 23ko 8/2007 Foru Legea aldatzen duena
- 25/2015 Foru Legea, abenduaren 28koa, Nafarroako Poliziei buruzko martxoaren 23ko 8/2007 Foru Legea aldatzen duen apirilaren 10eko 15/2015 Foru Legea aldatzekoa.
- 4/2015 Errege Lege-dekretua, martxoaren 22koa, Lan arloan enplegurako lanbide heziketako sistemen urgentziazko erreformarako.

**f) Hirigintza**

- 35/2002 Foru Legea, abenduaren 20koa, lurralde antolamenduari eta hirigintzari buruzkoa.
- 5/2015 Foru Legea, martxoaren 5koa, Nafarroan hirigintza iraunkorra, hiri-berrikuntza eta hirigintza-jarduera laguntzeko neurriei buruzkoa, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legea aldatzen duena.

**g) Diru-laguntzak**

- 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Diru-laguntzei buruzkoa, eta hura garatzeko erregelamendua, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onetsia.

**h) Toki entitateen barne araubidea**

- Toki entitateen aurrekontuen exekuzio oinarriak, 2015erako.
- Zergak eta prezio publikoak arautzen dituzten ordenantzak eta akordioak.
- Berariazko hitzarmen kolektiboak.

## 2. ERANSKINA 2015eko ADIERAZLE BATZUEN ALDERAKETA, NAFARROAKO UDALEN ETA ES-TATUKO UDALEN MULTZOAREN ARTEKOA, BIZTANLERIA-TARTEEN ARABERA

Eranskin honetan eta hari atxikitako informazioetan, adierazle-multzo baten alderaketa egiten dugu, Nafarroako udalen –beren udalerriko kontzejuak barne direla– eta Estatuko udalen multzoaren artekoa, biztanleria-tarteen arabera. Azken udal horien informazioa Toki Sektore Publikoari buruzko Kontuen Epaitegiaren 2015eko txostenetik lortu da. Haren web- orrian dago argitaratuta.

### a) 1.000 biztanle baino gutxiagoko udalak

Adierazlea	Nafarroa	Estatua	Nafarroako desbideratzea (%)
Gastuak, guztira (biztanleko)	1.242	1.239	0,2
Funtzionamendu-gastuak (biztanleko)	870	854	1,8
Gastu arrunta (biztanleko)	877	861	1,9
Inbertsio garbia (biztanleko)	280	326	-14,2
Inbertsio indizea (%)	23	27	
Langile gastuen indizea (%)	23	26	
Ordainketen betetzea (%)	93	93	
Diru-sarrerak, guztira (biztanleko)	1.312	1.331	-1,5
Diru-sarrera arruntak (biztanleko)	1.202	1.096	-8,8
Kobrانتzen betetzea (%)	90	87	
Aurrezki gordina (biztanleko)	333	242	37,3
Finantza-zama (biztanleko)	80	47	69,8
Aurrezki garbia (biztanleko)	253	195	29,5
Finantza-zamaren adierazlea (%)	7	4	
Aurrezki gordina / diru-sarrera arruntak (%)	28	20	
Zorpetze-ahalmena (%)	21	16	
Zor bizia (biztanleko)	492	263	87,2
Zorpetze-maila (%)	41	22	
Gastu orokorren diruzaintza-gerakina (biztanleko)	943	682	38,4
Aurrekontu-emaizta (biztanleko)	70	92	-24,1

Alderaketaren tarte honetan, honako hauek azpimarratu behar ditugu:

- Biztanle bakoitzeko gastuaren bolumena eta izaera oso antzekoak dira, salbu eta biztanle bakoitzeko inbertsio garbiaren kasuan; izan ere, ehuneko 14 txikiagoa da Nafarroan. Halaber, biztanle bakoitzeko diru-sarreraren maila eta izaera ere antzekoak dira.
- Inbertsioaren eta langileen adierazleek, gastuaren gutzizkoan, txikiak dira Nafarroako udaletan.
- Nafarroako udalek biztanle bakoitzeko balio hobeak dauzkate aurrezkitan eta gastu orokorretarako diruzaintza-gerakinetan.
- Bai biztanle bakoitzeko zor bizia, bai biztanle bakoitzeko finantza-zama handiagoak dira Nafarroako udaletan, ehuneko 87 eta ehuneko 70 hurrenez hurren, Estatuko udalen multzoarekin alderatuta.
- Diru-sarrera arruntan gainera zorpetzearen edo zorraren maila askoz handiagoa da tarte honetako Nafarroako udaletan: ehuneko 41 da Nafarroako udaletan, Estatuko udalen multzoan ehuneko 22 baizik ez den bitartean.

**b) 1.001 eta 5.000 biztanle bitarteko udalak**

Adierazlea	Nafarroa	Estatua	Desbideratzea (%) Nafarroa
Gastuak, guztira (biztanleko)	997	969	2,9
Funtzionamendu-gastuak (biztanleko)	808	720	12,1
Gastu arrunta (biztanleko)	815	729	11,9
Inbertsio garbia (biztanleko)	97	175	-44,5
Inbertsio indizea (%)	11	19	
Langileriaren indizea (%)	32	34	
Ordainketen betetzea (%)	94	93	
Diru-sarrerak, guztira (biztanleko)	1.057	1.026	3,1
Diru-sarrera arruntak (biztanleko)	1.008	898	12,2
Kobrانتzen betetzea (%)	92	87	
Aurrezki gordina (biztanleko)	200	178	12,7
Finantza-zama (biztanleko)	72	62	14,7
Aurrezki garbia (biztanleko)	129	116	11,5
Finantza-zamaren adierazlea (%)	7	7	
Aurrezki gordina / diru-sarrera arruntak (%)	20	20	
Zorpetze-ahalmena (%)	13	13	
Zor bizia (biztanleko)	502	338	48,5
Zorpetze-maila (%)	50	38	
Gastu orokorren diruzaintza-gerakina (biztanleko)	345	314	9,9
Aurrekontu-emaizta (biztanleko)	60	58	3,4

Biztanleriaren tarte honetan, honako hauek azpimarratu behar ditugu:

- Biztanle bakoitzeko gastuaren bolumena handiagoa da Nafarroan, bereziki funtzionamendu-gastuari dagokionez; inbertsio garbian, ordea, ehuneko 44 txikiagoa da. Handiagoak dira, halaber, biztanle bakoitzeko diru-sarrerak.
- Inbertsioaren eta langileen adierazleek, gastuaren guztizkoan, txikiak dira Nafarroako udaletan.
- Nafarroako udalek biztanle bakoitzeko balio hobeak dauzkate aurrezkietan eta gastu orokorretarako diruzaintza-gerakinetan.
- Bai biztanle bakoitzeko zor bizia, bai biztanle bakoitzeko finantza-zama handiagoak dira Nafarroako udaletan, ehuneko 48 eta ehuneko 15 hurrenez hurren, Estatuko udalen multzoarekin alderatuta.
- Diru-sarrera arruntan gainera zorpetzearen edo zorraren maila askoz handiagoa da tarte honetako Nafarroako udaletan: ehuneko 50 da Nafarroako udaletan, Estatuko udalen multzoan ehuneko 38 baizik ez den bitartean.

**c) 5.001 eta 50.000 biztanle bitarteko udalak**

Adierazlea	Nafarroa	Estatua	Desbideratzea (%) Nafarroa
Gastuak, guztira (biztanleko)	915	943	-3
Funtzionamendu-gastuak (biztanleko)	728	730	-0,3
Gastu arrunta (biztanleko)	733	743	-1,4
Inbertsio garbia (biztanleko)	49	105	-53,3
Inbertsio indizea (%)	6	11	
Langileriaren indizea (%)	40	36	
Ordainketen betetzea (%)	93	92	
Diru-sarrerak guztira (biztanleko)	908	1.014	-10,5
Diru-sarrera arruntak (biztanleko)	848	930	-8,8
Kobrانتzen betetzea (%)	92	87	
Aurrezki gordina (biztanleko)	121	200	-39,8
Finantza-zama (biztanleko)	82	97	-15,7
Aurrezki garbia (biztanleko)	39	103	-62,6
Finantza-zamaren adierazlea (%)	10	10	
Aurrezki gordina / diru-sarrera arruntak (%)	14	22	
Zorpetze-ahalmena (%)	4	11	
Zor bizia (biztanleko)	357	473	-24,6
Zorpetze-maila (%)	42	51	
Gastu orokorren diruzaintza-gerakina (biztanleko)	134	210	-36,1
Aurrekontu-emaiza (biztanleko)	-7	71	109,4

Alderaketa horretatik, honako hauek nabarmendu behar ditugu:

- Biztanle bakoitzeko gastu-bolumena txikixeagoa da Nafarroako udaletan, bai gastu arruntari begiratuta, bai, bereziki, biztanle bakoitzeko inbertsio garbiari begiratuta. Txikiagoak dira, halaber, biztanle bakoitzeko diru-sarrerak.
- Langileriaren gastuaren adierazlea, gastuaren gutzizkoan, handiagoa da Nafarroako udaletan.
- Nafarroako udalek balio txikiagoak dituzte biztanle bakoitzeko aurrezkietan eta gastu orokorretarako diruzaintza-gerakinean.
- Bai biztanle bakoitzeko zor bizia, bai biztanle bakoitzeko finantza-zama txikiagoak dira Nafarroako udaletan, ehuneko 25 eta ehuneko 16, hurrenez hurren, Estatuko udalen multzoan baino.
- Diru-sarrera arruntan gaineko zorpetzearen edo zorraren maila txikiagoa da tarte honetako Nafarroako udaletan: ehuneko 42 da Nafarroako udaletan, Estatuko udalen multzoan ehuneko 51 baizik ez den bitartean.

**d) 100.001 eta 500.000 biztanle bitarteko udalak**

Adierazlea	Nafarroa	Estatua	Desbideratzea (%) Nafarroa
Gastuak, guztira (biztanleko)	991	887	11,8
Funtzionamendu-gastuak (biztanleko)	827	703	17,6
Gastu arrunta (biztanleko)	844	714	18,3
Inbertsio garbia (biztanleko)	59	55	7,7
Inbertsio indizea (%)	8	7	
Langileriaren indizea (%)	43	33	
Ordainketen betetzea (%)	93	90	
Diru-sarrerak guztira (biztanleko)	1.028	962	6,8
Diru-sarrera arruntak (biztanleko)	960	891	7,7
Kobrانتzen betetzea (%)	92	89	
Aurrezki gordina (biztanleko)	133	188	-29,2
Finantza-zama (biztanleko)	58	98	-40,8
Aurrezki garbia (biztanleko)	75	90	-16,5
Finantza-zamaren adierazlea (%)	6	11	
Aurrezki gordina / diru-sarrera arruntak (%)	14	21	
Zorpetze-ahalmena (%)	8	10	
Zor bizia (biztanleko)	479	620	-22,8
Zorpetze-maila (%)	50	70	
Gastu orokorren diruzaintza-gerakina (biztanleko)	68	67	1,9
Aurrekontu-emaiza (biztanleko)	37	76	-51,3

Hauek azpimarratu behar ditugu:

- Per capita gastua, guztizkoa, handiagoa da Nafarroako udaletan, bereziki gastu arruntetan eta inbertsio garbiko gastuetan. Handiagoak dira, halaber, biztanle bakoitzeko diru-sarrerak.
- Langileriaren gastuaren adierazlea, gastuaren guztizkoan, handiagoa da Nafarroako udaletan.
- Nafarroako udalek balio txikiagoak dituzte biztanle bakoitzeko aurrezkietan, eta handiagoak, beriz, gastu orokorretarako diruzaintza-gerakinean.
- Bai biztanle bakoitzeko zor bizia, bai biztanle bakoitzeko finantza-zama txikiagoak dira Nafarroako udaletan, ehuneko 23 eta ehuneko 41, hurrenez hurren, Estatuko udalen multzoan baino.
- Diru-sarrera arruntan gaineko zorpetzearen edo zorraren maila txikiagoa da tarte honetako Nafarroako udaletan: ehuneko 50 da Nafarroako udaletan, Estatuko udalen multzoan ehuneko 70 baizik ez den bitartean.



